

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Aitzol Aramaio zinema zuzendari ondarroarra Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* eleberrian oinarritutako filma grabatzen ari da azken asteotan. Algortako Portu Zaharrean, Gorlizen, Bilbon, Portugaleten eta Zaldibian grabatuko du filma bost astez eta besteak beste, Daniel Brühl, Hector Alterio, Barbara Goenaga eta Ramon Barea izango ditu protagonista.

Deabruak Teilatuetan taldeak iragarri duenez, abenduaren 29an zuzeneko emanaldia eskainiko dute Tolosako Bonberenea gaztetxean. Urtarrilean hasi ziren berriro entseatzen eta disko berria ere prest dute. 1973 izango da lan berriaren izena, taldekideak jaio ziren urtearengatik, eta aurtengo urria edo azarorako kalean izango da. 1998. urtetik geldirik egon dira tolosarrak, ikasketengatik elkarrezko arazoak zituztelako.

Joxe Lacalle, Daniel Vélez, Maria Angeles Goikoa, Jaime Basterretxe, Javier

Gallego, Txema Ormazabal eta Luis Ziarrusta argazkilarien lanez osatutako erakusketa paratu dute Zarauzko Photomuseum-en. *Euskal kazetaritza grafikoa bere kasa* du



izena erakusketak eta orain dela hiruzpalau hamarkadako fotokazetaritza lanak biltzen ditu. Besteak beste *Zeruko ARGIA*, *Egin*, *Sud Ouest*, *Deia* edo *Punto y Hora de Euskal Herria* egunkari eta aldizkarietan kaleratutako argazkiak bildu dituzte. Irudian Jaime Basterretxek Kirk Douglassi elkarte gastronomiko batean ateratzion argazkia.

Zirtzilak antzerki taldeak *Goomet* izeneko antzezlan estreinatu zuen joan den astean Aiherrako Denen Etxean. Bederatz lagunez osatutako antzerki taldearen lehen obra da, nahiz eta lehenagotik baduten taula gainean eskarmetua: iaz Antton Lukuren *Libertimintuan* lanean aritu ziren eta horren ondoren sortu zitzaizen taldea osatzeko ideia.

Euskarazko literatura eta itzulpeneko Euskadi Sarien epaimahaia izendatu dute



Euskarazko literatura eta itzulpen alorretako Euskadi Sariak badute 2007. urterako epaimahaia dagoeneko. Joan den astean kaleratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aurten sariok emateaz arduratuko diren pertsonen zerrenda. Karlos Otegi izango da euskarazko literaturako Euskadi Sariaren epaimahaiko burua eta Jon Kortazar, Arantxa Urretabizkaia, Karlos Santisteban eta Pello Otxoteko izango dira epaimahaikideak. Euskarazko itzulpenarenari dagokionez berriz, Bakartxo Arrizabalaga izango da epaimahai-buru eta Karlos del Olmo, Irene Arrarats, Mikel Hoyos eta Josu Barambones epaimahaikide. Iaz Xabier Olarrak eta Iban Zalduak (argazkian) eskuratu zituzten sariok euskarazko itzulpen eta literatura alorretan hurrenez hurren.

Iker Murillo dantzariak *Oarsoaldean* aldizkarian esanak:

«Dantzari profesionala izan nahi baduzu ez daukazu bestelako aukerarik, dena utzi behar duzu zure ametsa egi bihurtzeko, eta hori txikitatik jakina da, koreografiarekin batera ikasten den printzipioa (...) Suitzan kaletik zoazela ezagutzen ez dituzun pertsonak geratu egiten zaituzte egindako emanaldiagatik zoriontzeko, autografoak eskatzen dizkizute... Dantzariak bertan, kultura munduko pertsonaia oso garrantzitsuak dira».

Laura Mintegi idazleak *Garan*:

«Diru-laguntzen sistema perbertsoa da. Kopuru bat ezartzen da aurretik jakin gabe zeintzuk diren beharrianak kulturaren eremuan. Kopurua banatu egiten da eskaeren artean: eskaera asko, orduan talde gutxiagori diru gutxiago. Iaz proiektu interesgarria zena aurten laguntzarik gabe gera daiteke, eskaera gehiago egon delako. Irizpidea ez da kultura bera, baizik eta zenbat diru geratzen den beste arloetatik

soberan. Gero diote kultura krisian dagoela. Barka, krisian dago banatzaileen irizpide maltzurra, zitala eta perbertsoa, ez sortzaileen eremua. Kultura bizi-bizirik dago, emankor. Hori bai, ekonomikoki itota».

Itxaro Borda idazleak *Berrian*:

«Iparraldekoa naiz, Iparraldeko barnealdekoa... hemengo euskarari idazten dut gehienbat, nahiz eta batuaren sarea ere erabiltzen dudana... gai oso txiki, oso berezi eta oso lekuak tratatzen ditut... Eta, hala ere, irakurleak ukanen ditudala pentsatzen dut.

Eta egia da irakurleak baditudala. Eta horietako batzuk fidelak, hasiera hasieratik irakurtzen nautenak (...) Ohitu naiz hainbat urtez errekonozimendurik gabe idazten. Ez dakit hemengo kultur sistemak onartzen nauenetz ere. Funtsan, ez dut baitezpada maitatua eta ohoratua izatearen beharrik idazteko, hots, bizi-tzeko. Begiak, belarriak eta bihotza ditudano idatziko dudala badakit».

Egia auzoa, Berlinen

Das Leben der Anderen (Besteen bizitza / La vida de los otros / La vie des autres), Alemania 2006. Zuz.: Florian Henckel von Donnersmarck. Akt.: Ulrich Mühe, Martina Gedeck, Sebastian Koch, Ulrich Tukur.



Berlin 1984. Piztia idazlearen etxean zegoen, adi, dena entzuten, egunean 24 orduz, astean zazpi egunez, inor konturatu gabe. Eta ez zen adar eta buztan, hiruhortzeari eskuan infernueetatik etorritako deabrua. Funtzionario gris burusoila besterik ez zen. Bere lana ongi egiten zuen Stasi-ko funtzionarioa, Alemaniako Errepublika Demokratikoaren —nire belaunaldikoei oharra: komunista— hondarreko urteetan. Horra abiapuntu bat pelikula batentzat.

2006ko Oscar sarietan atzerriko film onena —esan nahi baita AEBn egin ez zen filmik onena— izendatu zuten *Das Leben der Anderen*. Orduan, eszeptizismoa. Akademiaren logika, imajinatze modukoa: komunista gaiztoak menperatu eta zintzotu genituen eta orain urte haietako gertakariak salatzen dituzten filmak egiten dituzte. Ergo, saritu egingo ditugu.

Hala ere hurbildu egin ginen zinemara, ez baitago pelikula errudunik, kontrakoa frogatzen den arte. Eta

gustatu, hara. Metafora maiztu samarra erabiliz tipularen antzera ikus daitekeen horietakoa da filma, geruza ugariak: jazarpen politikoa, bakardadea, sumisioa, idealen galera —bikaina Ulrich Mühe-k antzeztutako pertsonaiaren bilakaera—, traizioa... Istorioak sakontasun handia du, ezin uka.

Baina zalantza uxaezina. Berandu ez ote datorren. Esan nahi dut, zinema nola-hala “soziala” izan nahi eta ezina ez ote den. Francis Fukuyamak iragarritako historiaren amaiera etorri ez zen bezala, estatuen espioitza ere ez zela Gerra Hotzarekin amaitu alegia, eta filmeko istorio bera gaur egungo AEBn, Erresuma Batuan, Errusian edo Euskal Herrian —galdetu bestela etxeko sofa azpian mikroa aurkitu zuten Donostiako Egia auzoko gazteei— konta zitekeela. Eta bestelako indarra izango zuela, iraganak galdu duena.

GORKA BEREZIARTUA

kulturagenda

Irailaren 1etik 15era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak

Soinu dimentsioa

Artistak: Allen Productions, Mikel Arce, Andres Bosshard, Ramón González-Arroyo, Gary Hill, Tom Johnson, Donatella Landi, Bernhard Leitner, Alvin Lucier, Baudouin Oosterlynck, Paul Panhuysen, Manuel Rocha Iturbide, Isidoro Valcárcel Medina

Uztailaren 12tik Irailaren 15era

Erakustaretoan

Erakusketa multimedia

Batekmila-Euskal munduak

Irailaren 19tik Azaroaren 17ra

Ganbaran

Ordutegia: asteartetik larunbatera
10:30-14:00 eta 16:00-20:30
(astelehen, igande eta jai egunetan itxita)



Kristobaldegia, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Hiri kontrakulturen ikus-entzunezko jaialdia

Street Zinema 07

Irailak 6-9

Osteguna, irailak 6, 19:00-22:30

Emanaldiak: Arte bastardo | The Run Up | On the broad

Koordinazioa: Perros Callejeros Films

www.street-zinema.net

Ikastaroa

Bruce McClure

Live cinema: proiektorea sortze tresna modura

Irailak 18-20

Koordinazioa:

Xabier Erkizia eta Alex Mendizabal

Ikastaroa

GNU/Linux sistemara migratzea

Irailak 24-28

Emaila: Gipuzkoako Software Askea Elkarte

